

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: FAGOTA 2019ko MARTXOaren 13a

2019ko MARTXOaren 13an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **fagot** espezialitatean. Bertan David Tomás Realp eta Javier González Sarmiento irakasleek eta Musikeneko fagot ikasleek parte hartuko dute.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten fagot ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten fagot ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

Jardunaldiaren helburua

- Goi Mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei eta bertan egongo diren irakasleei sarrera probei buruzko informazioa ematea, bertan eskatuko den maila eta gomendatzen den erreperitorioa barne.
- Musikeneko ikasleak eskola batean eta emanaldi batean entzutea.
- Ikastegiaren funtzionamenduari buruzko informazioa ematea.

Jarduera-egitasmoa

9.00-10.00: Ate irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Fagot espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldi informatiboa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera probei buruzko azalpenak. Eraikinari bisita gidatua.

10.00-13.30 Musikeneko ikasleei eskola indibidualak.

13.30-15.00: Bazkaria.

15.00-18.00: Eskola irekiak izena eman duten ikasleentzat.

Non egingo den

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2.

20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Haize eta Perkusio instrumentuen Departamentu bukuarekin: Rodolfo Epelde repelde@musikene.eus